

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1304/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa, Bizkaiko Foru Aldundiko urriaren 15eko 151/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraren duen epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2020. urtean zehar Bizkaiko higiezin kultur ondarea berritzeko eraikuntza esku-hartzeak egiteko foru diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia.

Urriaren 15eko 151/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko higiezin kultura ondarea berritzeko 2020an egiten diren eraikuntzako esku-hartzeak egiteko foru diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi du (2019ko urriaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 206 zenbakia).

Aipatutako foru dekretuaren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenak Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko urriaren 15eko 151/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena egin eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra: Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua: Xabier Arauzo Uriarte. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Zuriñe Antoñana Ozaeta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
 - Arantza González de San Roman González de San Román. Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Ataleko burua.
 - Josu Maroto Peñagarikano. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko Arkitektoa.
- Odezko mahaikideak:
 - Montserrat Petralanda Gorrotxategi. Bizkaiko Foru Aldundiko Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko burua.



- Roberto Laso Gutierrez Solana. Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberritzeaz arduratzen den arkitektoa.
 - Jon Azkuenaga Urizar. Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberritzeaz arduratzen den arkitektoa.
- Idazkari titularra, botorik gabe: Nahikari Gil Elorduy. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria: Jaione Larrea Nájera. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra.—*Indarrean jartzea*

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko ekainaren 11n.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA